



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilak 10

Vitoria-Gasteiz, 10 de enero de 2017

Lehendakaritza

LEHENDAKARIA ERROMARA JOANGO DA SANT'EGIDIOKO KOMUNITATEAK ERREFUXIATUEKIN DUEN PROIEKTUA EZAGUTZEKO

- **Bidaia ofizialeko ekitaldiak urtarrilaren 12an, ostegunean, hasiko dira eta ostiralean bukatuko dira.**

Iñigo Urkullu lehendakaria Eusko Jaurlaritzatik Erromara bisitan joango den ordezkaritza baten buru izango da, Sant'Egidioko komunitatearekin harremanak estutzeko. Sant'Egidioko komunitatea 1968an sortutako erakunde bat da, azkeneko urteetan "korridore humanitarioak" deituriko legezko bide ziur bat garatu duena gerratik eta pobreziatik ihes egiten duten errefuxiatuei laguntzeko. Bidaia urtarrilaren 12tik 13ra bitartean izango da.

Lehendakaria buru duen ordezkaritza honako hauek osatuko dute: Marian Elorza Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak; Jonan Fernández Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak; eta Monika Hernando Biktima eta Giza Eskubideen zuzendariak.

Erromara egingo den bisita ofizialean, Marco Impagliazzo Sant'Egidioko komunitatearen presidentearekin bilduko da lehendakaria. Horrez gain, "korredore humanitarioak" deituriko proiektuan hartuta dauden ikasle eta errefuxiatuen ordezkariekin biltzeko aukera izango du.

Gainera, lehendakariak bilera bat izango du Arturo Sosa Jesusen Konpainiaren nagusi orokorarekin.

Sant'Egidioko komunitatea

Sant'Egidioko komunitateak joan zen abenduaren 12an René Cassin saria jaso zuen lehendakariaren eskuetatik. Saria aitorten publiko bat da giza eskubideen balioen sustapenean lagundu dutelako.

Sant'Egidioko komunitatea hainbat hamarkadetan zehar bultzatzen ari da erlijio arteko elkarrizketa, herrien arteko anaitasuna, justiziarekin pobrezia aurka egitea edo heriotza-zigorra ezeztatzea. Azken urteetan, komunitatearen jarduna "korredore humanitarioak" deiturikoak bultzatzean oinarritu da, gerratik eta pobreziatik alde egin duten errefuxiatuen krisi latzari erantzuteko. Legezko bide ziur bat da, Mediterraneoan bizitza arriskuan jarri gabe ahultasun baldintzetan bizi diren pertsonak hartzeko. Bide hori posible izan da Italiako gobernuak (Kanpo eta Barne ministerioa), Sant'Egidioko komunitateak, Italiako Eliza Ebanjelikoen Federazioak eta Valdesa Mahaiak lortutako hitzarmen bati esker. Hitzarmen hori babeserako eta integrazioerako eredu bat da berriz errepikatu ahal dena.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKAL ETA ESPANIAR GOBERNUAK AKORDIO BATERA IRITSI DIRA KAreN AURREAN EUSKADIKO UDAL LEGEAREN AURKAKO HELEGITEA EKIDITEKO

- Eusko Jaurlaritzak *“garrantzitsutzat”* jo du akordioa, *“lege horren judizializazioa ekidin eta Eusko Legebiltzarrak joan den legealdian onartutako lege garrantzitsuenetako bat bertan behera uzteko aukera behin betiko ezabatuko duena”*.
- Haatik, Eusko Jaurlaritzak deitoratu egiten du Adikzioen Legearen inguruan oraindik akordio bat ez egotea, eta negoziatziorako dei egiten du epea amaitu aurretik.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Erkorekak gaur eman du Eusko Jaurlaritzaren eta gobernu espainiarraren artean Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen inguruan lortutako akordioaren berri, dozena bat artikuluren interpretazioari buruzko akordio bat, Konstituzio Auzitegian helegite bat jartzea ekidingo duena.

Batzorde negoziatzaileen lan handi baten ostean, bi gobernuak testu-proposamen batera iritsi dira, eta aste honetan bertan sinatuko dute Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Erkorekak eta Presidentziako eta Lurralde Administrazioetako presidenteorde eta ministro Soraya Sáenz de Santamariak.

Akordioak, sinatu eta dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratutakoan, gai garrantzitsuekin lotutako 12 artikuluko argituko ditu. Horien artean, hauek:

- ✓ euskararen erabilera udaletan,
- ✓ barne-antolakuntza eta udal-akordioen publizitate aktiboa, edo
- ✓ herritarren partaidetza udaleko gaietan herri-kontsulten bidez.

Eusko Jaurlaritzak *“garrantzitsutzat”* jo du akordio hori, *“Euskadiko barne-instituzionalizazioa egiteko prozesua osatzen duen lege horren judizializazioa ekidingo duelako”*. Gainera, *“behin betiko ezabatuko du Eusko Legebiltzarrak joan den legealdian onartutako lege garrantzitsuenetako bat bertan behera uzteko aukera, beharrezko arau bat, lehen aldiz definitu eta argitzen dituen”* udal-eskumenak eta haien finantzaketa egokia lortzen duena.

ADIKZIOEN LEGEA

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak deitoratu egiten du euskal eta espainiar gobernuen jarrerak oso urrun egotea *Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Legearen* inguruan. Haatik, Eusko Jaurlaritzaren ustez,

oraindik egunak geratzen dira akordio hori negoziatzeko eta horrekin aurrera egiteko bi gobernuen arteko aldebiko harremanen beharrezko normalizazioan.

HELEGITEAK JARTZEKO EPEAREN AMAIERA

Aste honetan amaituko da bi gobernuak aldebiko Estatu/Euskadi Batzordean lau helegiteetako bi kentzeko negoziatzen ari diren jartzeko epea:

- ✓ Hilaren 14an, larunbata, *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea*.
- ✓ Hilaren 13an, ostirala, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko *Legea*.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK ZUZENDARITZAZ BESTEKO LANGILEEI 2010ean KENDUTAKO SOLDATAREN EHUNEKOA ITZULTZEKO KOSTUA EBALUATZEKO ESKATU DIE SOZietATE PUBLIKOEI

- **Gobernu Kontseiluaren ustez, kolektibo profesional horri 2015eko uztailaren 31tik soldatatik murriztutako kantitateak itzuli behar zaizkio. Data horretan epaitu zuen KAK 2010eko oinarrizko araudi espainiarrak ez zuela eraginik izan behar erkidegoko sektore publikoko sozietate anonimoetako zuzendaritzaz besteko langileen artean.**

Gobernu Kontseiluak gaur erabaki du erkidegoko sozietate publiko guztiei eskatzea gastu publikoa ebaluatzeko, Konstituzio Auzitegiaren 143/2015 epaiaren eraginpeko zuzendaritzaz besteko langileen soldata arautzeko.

KAren epaiak, 2015eko uztailaren 31n argitaratu eta harrezkero ondorioak dituenak, bertan behera utzi zuen *Euskadiko 2010erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen 23.9 artikulua*, erkidegoko sozietate publikoetako zuzendaritzaz besteko langileak oinarrizko araudi espainiarrean ezarritako % 5erainoko soldata-murrizketaren eraginpeko kolektiboen zerrendan sartzeagatik. Zehazki, *maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuan, abenduaren 23ko 26/2009 Legea, Estatuko 2010erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa aldatzekoan*.

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sozietate anonimoei eskatzen die orain gastu publikoa ebaluatzeko, langile bakoitzari 2015eko uztailaren 31tik kendutako kantitateak itzultzeko. Data horretan argitaratu zen KAren epaia eta, beraz, harrezkero sortu zituen ondorioak.

Erkidegoko sozietate publiko bakoitzak eraginpeko pertsona bakoitzari kantitateak itzultzeko gastu publikoaren ebaluazio indibidualizatu bat egin beharko du orain, eta informazioa Eusko Jaurlaritzara igorri.

Enplegua eta Gizarte Politikak

BEATRIZ ARTOLAZABAL: “BEHAR DUTENEI DSBE BAT BERMATU NAHI DIEGU, BIZI-BALDINTZA DUIN BATZUK BERMATZEKO ETA LANERATZEKO AUKERAK LEHENESTEKO”

- **Eusko Jaurlaritzak bost hileko epean Legebiltzarrari DSBEri buruzko proposamen integral bat aurkezteko konpromisoa hartu du, iraunkorra eta eraginkorra izango dena**

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketarako sailburu Beatriz Artolazabalen ustez, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta-DSBE-n KPI gehituta, “Eusko Jaurlaritzak behar duten pertsona guztiei DSBE bat harmonizatu eta bermatu nahi die, bizi-baldintza duin batzuk izan ditzaten eta DSBE jasotzen ari diren pertsonak laneratzeko aukerak lehenesteko. Ez dago zalantzarik euskal gizarte osoaren erabateko lehenetasuna dela”.

Eusko Jaurlaritzak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eguneratzea proposatu du, ekarpenak iazko KPIaren gehikuntzaren neurri berean gehituta. “Eusko Jaurlaritzaren gehikuntza adierazgarria da hau, babes sozialeko euskal sistemaren laguntzei gehituko zaiena”, nabarmendu du Artolazabalek.

Artolazabal sailburuak esan duenez, “DSBE eguneratzea erabaki dugu bizi-kostuaren (KPIaren) gehikuntza kontuan hartuta. Gogoratu nahi dut babes sozialeko euskal sistema osoak bizitzako baldintza duin batzuk bermatzen dituela Euskadin premia sozial handiagoa duten pertsonentzat”.

“Gure baliabide ekonomikoak laneratzeko programak erraztera bideratuko ditugu, langabezia kronifikazio-egoerak ekiditen saiatuta. Gogorazi nahi dut Eusko Jaurlaritzaren helburua dela Euskadin pobrezia-tasa % 20 murriztea” erantsi du Artolazabal sailburuak.

Artolazabalek Gobernu Kontseiluaren ondorengo prentsaurrekoan azaldu duenez, “Eusko Jaurlaritzak bost hileko epean Legebiltzarrari DSBEri buruzko proposamen integral bat aurkezteko konpromisoa hartu du, iraunkorra eta eraginkorra izango dena. Sistema hori adostasunetik eta akordiotik eraman da beti Euskadin, eta gorde behar dugun aktibo bat da hori”.

“Nolanahi ere, garrantzitsua da azpimarratzea Lanbidek egindako txosten juridikoak Eusko Jaurlaritzak osoak hartu duen erabakia babesten duela. Errealismoaren, erantzukizunaren eta sistemaren iraunkortasunaren printzipioak kontuan hartzen dituen erabakia da hau”, erantsi du.

DSBEren ekarpena

Berriz diot: Euskadin pertsona babesgabeenentzat diru-sarrerak bermatzeko sistema bat egitea, beste herrialde aurreratu batzuen esperientzietan oinarritua,

oso lagungarria da Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen sozial eta ekonomikorako, ahalik eta gizarteratze handiena erraztera bideratuta baitago.

Artolazabalen ustez, “pertsona lan-munduan egotea prestazioan egotea baino kokapen hobeia izan behar da. Benetako laneratzea bizkortu behar da, kronifikazio-egoerak ekidinda eta pertsona horiek lan-merkatuan gehitzea estimulatuta”.

“Era berean, ez da lan-izaerako prestazio bat, haren xedea baita laneratzeko eta gizarteratzeko prozesu bateko oinarritzko premiei lotutako gastuei aurre egiteko nahikoa diru-sarrera ez duten pertsonen premiak estaltzea”, azaldu du Artolazabal sailburuak.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren ustez, egokiagoa da prestazio horren erosteko ahalmenari eustea eta DSBEren xedea bermatzen jarraitzea, eta haren igoserarekin gauzatzen da hori, Kontsumoko Prezioen Indize-KPIren gehikuntzan oinarrituta.

Presidencia

EL LEHENDAKARI VIAJARÁ A ROMA PARA CONOCER EL PROYECTO DE LA COMUNIDAD DE SANT'EGIDIO CON LAS PERSONAS REFUGIADAS

- **La actividad del viaje oficial comenzará el jueves día 12 de enero y finalizará el viernes 13.**

El Lehendakari Iñigo Urkullu encabezará una delegación del Gobierno Vasco que viajará a Roma con el fin de estrechar relaciones con la Comunidad de Sant'Egidio. Se trata de una entidad fundada en 1968 que a lo largo de los últimos años ha desarrollado una vía legal y segura denominada “corredores humanitarios” para dar respuesta a las personas refugiadas que huyen de la guerra y la pobreza. El viaje se desarrollará a lo largo de los días 12 y 13 de enero.

La delegación encabezada por el Lehendakari estará formada por la Secretaria General de Acción Exterior, Marian Elorza; el Secretario General para la Paz y la Convivencia, Jonan Fernández; y la Directora de Víctimas y Derechos Humanos, Monika Hernando.

En la visita oficial a Roma, Iñigo Urkullu se reunirá con el Presidente de la Comunidad de Sant'Egidio, Marco Impagliazzo. Además, tendrá ocasión de mantener un encuentro con estudiantes y representantes de las personas refugiadas acogidas por la entidad en el marco del proyecto “Corredores Humanitarios”.

Otro punto a destacar del viaje oficial es la reunión que mantendrá el Lehendakari con el Superior General de la Compañía de Jesús, Padre Arturo Sosa.

Comunidad de Sant'Egidio

La Comunidad de Sant'Egidio recibió el pasado 12 de diciembre el premio René Cassin de manos del Lehendakari. El galardón es un reconocimiento público por su contribución a la promoción de los valores derechos humanos.

La Comunidad viene impulsando desde hace décadas el diálogo interreligioso, el hermanamiento entre los pueblos, la lucha contra la pobreza con justicia, o la abolición de la pena de muerte. Durante los últimos años, su actividad se ha centrado en impulsar los llamados “corredores humanitarios” como respuesta a la grave crisis de las personas refugiadas que huyen de la guerra y la pobreza. Se trata de una vía legal y segura para la acogida de personas que viven en condiciones de vulnerabilidad sin poner en peligro su vida en el Mediterráneo. Una vía que ha sido posible gracias al acuerdo alcanzado entre el Gobierno Italiano (Ministerio de Exteriores y de Interior), la Comunidad de Sant'Egidio, la Federación de Iglesias Evangélicas de Italia y la Mesa Valdesa. Este acuerdo es un modelo de acogida y de integración que se puede replicar.

Gobernanza Pública y Autogobierno

LOS GOBIERNOS VASCO Y ESPAÑOL LLEGAN A UN ACUERDO QUE EVITARÁ EL RECURSO ANTE EL TC DE LA LEY MUNICIPAL DE EUSKADI

- El Gobierno Vasco valora el acuerdo como *“importante”* en la medida que *“evitará la judicialización de esta Ley y disipará definitivamente la posibilidad de suspensión de una de las Leyes más importantes aprobadas por el Parlamento Vasco la pasada legislatura”*.
- En cambio, el Gobierno Vasco lamenta que no se haya producido aún un acuerdo en torno a la denominada Ley de Adicciones, y apela a la negociación antes de que venza el plazo.

El Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, y Portavoz del Gobierno Vasco, Josu Erkoreka, ha informado hoy del acuerdo alcanzado entre los gobiernos vasco y español en torno a la *Ley de Instituciones Locales de Euskadi*, un acuerdo de interpretación de una docena de artículos que evitará la interposición de recurso ante el Tribunal Constitucional.

Tras un intenso trabajo por parte de las comisiones negociadoras, ambos gobiernos han llegado a una propuesta de texto, que firmarán esta misma semana, el Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno y Portavoz del Gobierno Vasco, Josu Erkoreka, y la Vicepresidenta y Ministra de la Presidencia y para las Administraciones Territoriales, Soraya Sáenz de Santamaría.

El acuerdo, una vez firmado y publicado en los respectivos Boletines Oficiales, permitirá clarificar 12 artículos relacionados con materias relevantes. Entre ellas:

- ✓ uso del euskera en los Ayuntamientos,
- ✓ organización interna y publicidad activa de los acuerdos municipales, o
- ✓ participación ciudadana en los asuntos municipales a través de las consultas populares.

El Gobierno Vasco califica este acuerdo de *“importante”* porque *“evitará la judicialización de esta Ley que completa el proceso de institucionalización interno de Euskadi”*. Además, *“disipará definitivamente la posibilidad de suspensión de una de las Leyes más importantes aprobadas por el Parlamento Vasco la pasada legislatura, una ley necesaria que define y clarifica, por primera vez, las competencias municipales y procura su adecuada financiación”*.

LEY DE ADICCIONES

En cambio, el Gobierno Vasco lamenta que las posturas de los gobiernos vasco y español siguen muy distantes en torno a la *Ley de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias*. No obstante, el Gobierno Vasco cree que aún quedan días para negociar este acuerdo y avanzar, con ello, en la necesaria normalización de las relaciones bilaterales entre ambos gobiernos.

FIN DE PLAZO DE INTERPOSICIÓN DE RECURSOS

Esta semana finaliza el plazo de interposición de dos de los cuatro recursos que ambos gobiernos están negociando en el seno de la Comisión Bilateral Estado-Euskadi:

- ✓ El sábado 14, el plazo de recurso de la *Ley de Instituciones Locales de Euskadi*.
- ✓ El viernes 13, el plazo de recurso de la *Ley de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias*.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO PIDE A LAS SOCIEDADES PÚBLICAS QUE EVALÚEN EL COSTE PARA DEVOLVER A SU PERSONAL LABORAL NO DIRECTIVO EL PORCENTAJE DE SUELDO RETIRADO EN 2010

- **El Consejo de Gobierno considera que debe devolverse a este colectivo profesional las cantidades minoradas del sueldo desde el 31 de julio de 2015, fecha en la que el TC sentenció que la normativa básica española de 2010 no debería haber afectado al personal laboral no directivo de las sociedades anónimas del Sector Público autonómico.**

El Consejo de Gobierno ha acordado hoy instar a todas las sociedades públicas autonómicas a que evalúen el gasto público para proceder a la regularización salarial de su personal laboral no directivo, afectado por la sentencia 143/2015 del Tribunal Constitucional.

El fallo del TC, publicado y con efectos a partir del día 31 de julio de 2015, anuló el artículo 23.9 de la *Ley de Presupuestos Generales de Euskadi para 2010*, por incluir al personal laboral no directivo de las sociedades anónimas públicas autonómicas, en el listado de colectivos afectados por la reducción salarial, de hasta el 5%, impuesto en la normativa básica española. En concreto, en el *Real Decreto-Ley 8/2010, de 20 de mayo, de modificación de la Ley 26/2009, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el ejercicio 2010*.

El Gobierno Vasco insta ahora a las sociedades anónimas del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a que evalúen el gasto público de cara a la devolución de las cantidades reducidas del salario a cada persona trabajadora desde el 31 de julio de 2015, momento en el que se publicó, y por tanto desplegó sus efectos, la sentencia del TC.

Cada sociedad pública autonómica deberá, ahora, realizar una evaluación de manera individualizada del gasto público que entrañará la devolución para cada persona afectada y remitir la información al Gobierno Vasco.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO ACTUALIZA LA RGI Y PRIORIZA LA INSERCIÓN LABORAL

- **El Gobierno Vasco ha adquirido el compromiso de presentar al Parlamento -en el plazo de cinco meses- una propuesta integral relativa a la RGI sostenible y eficaz.**

La Consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, considera que, con el incremento del IPC en la Renta de Garantía –RGI- “el Gobierno Vasco trata de armonizar y garantizar una RGI a todas las personas que la necesitan, de forma que puedan mantener unas condiciones de vida dignas y, además, primar las oportunidades de inserción laboral de las personas que se encuentran recibiendo la RGI. No cabe duda de que esta es la prioridad absoluta del conjunto de la sociedad vasca”.

El Gobierno Vasco ha propuesto actualizar la Renta de Garantía de Ingresos, incrementando las aportaciones en la misma medida que el incremento del IPC del pasado año. “Este es un incremento significativo por parte del Gobierno Vasco, que se incorpora a las ayudas del sistema vasco de protección social” ha destacado Artolazabal.

Según la Consejera Artolazabal “hemos tomado la decisión de actualizar la RGI atendiendo al incremento del coste de la vida (IPC). Quiero recordar que el sistema vasco de protección social en su conjunto garantiza en Euskadi unas condiciones de vida dignas a las personas con mayor necesidad social”.

“Vamos a destinar nuestros recursos económicos a tratar de favorecer los programas de inserción laboral, tratando de evitar situaciones de cronificación en el desempleo. Quiero recordar que el Gobierno Vasco tiene como objetivo reducir en un 20% la tasa de pobreza en Euskadi” ha añadido la Sailburu Artolazabal.

Artolazabal ha explicado en la rueda de prensa posterior al Consejo de Gobierno que “el Gobierno Vasco ha adquirido el compromiso de presentar al Parlamento -en el plazo de cinco meses- una propuesta integral relativa a la RGI que resulte sostenible y eficaz. Este sistema se ha conducido siempre en Euskadi desde el consenso y el acuerdo y este es un activo que debemos preservar”.

“En cualquier caso, es importante subrayar que el Informe jurídico realizado por Lanbide respalda la decisión que ha sido adoptada por el Gobierno Vasco en su conjunto. Esta es una decisión que atiende a los principios de realismo, responsabilidad y sostenibilidad del sistema” ha destacado.

Contribución de la RGI

Insisto: la realización en Euskadi de un sistema de garantía de ingresos para las personas más desfavorecidas, basado en experiencias de otros países avanzados, contribuye con firmeza al desarrollo social y económico del País Vasco ya que está dirigido a favorecer la máxima inclusión social.

Beatriz Artolazabal considera “que la presencia de la persona en el mundo del trabajo ha de suponer una mejor posición que la permanencia en la prestación. Se trata de propiciar la inclusión laboral real, evitando situaciones de cronificación y estimulando su incorporación al mercado laboral”.

“Asimismo, la RGI no es una prestación de naturaleza laboral ya que su objeto es cubrir las necesidades de las personas que no dispongan de ingresos suficientes para hacer frente a los gastos asociados a las necesidades básicas en un proceso de inclusión laboral y social” ha explicado la Sailburu Artolazabal.

En este sentido el Gobierno Vasco considera más adecuado el mantenimiento del poder adquisitivo de esta prestación y seguir garantizando el objeto de la RGI algo que se materializa con la subida de la misma en base al incremento del Índice de Precios al Consumo-IPC.